

Erref.- AIP/Goi-mailako teknikaria

GERENTEAREN EBAZPEN-PROPOSAMENA, ZEINAREN BIDEZ ONARTZEN BAITIRA ERIZAINEN KATEGORIAKO HAUTAKETA-PROZESUTIK SORTUTAKO LAN-POLTSAREN ZONIFIKAZIO-PROZESUKO BEHIN-BEHINEKO ZERRENDAK.

Gerente jauna:

GUFEn Gobernu Batzordeak, 2018ko apirilaren 13an egindako bilera arruntean, besteak beste, aldi baterako lan-poltsak kudeatzeko irizpide berriak onartu zituen, zonifikazio berriaren eranskinarekin batera. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen irizpideon testu osoa (2018ko 76. BAO, apirilaren 20koa), eta haren okerren zuzenketa, berriz, BAO n (2018ko 85. zenbakia, maiatzaren 4koa) GUFEn iragarki-oholean eta web-orrian.

Erabaki horren 4. artikuluan ezartzen da hautaketa-prozesuaren ondoriozko poltsak eratzten direnean aukeratuko dituztela izangaiek, lehenengoz, lan egiteko zona zein kontratu-mota direla-eta lehenetsitako aukerak, orduan aukeratuko baitute dute zer poltsa motatan egon nahi duten.

Artikulu berean ezartzen da, hautaketa-prozesu bakoitza amaitu ondoren, GUFek ofizioz hasiko duela lan-poltsak eratzeko prozesua. Eraginkortasun handiagoa lortzeko, egokitzat jo zen zonifikazio-epea irekitzea, lan-poltsa behin betiko onartzeko baldintza etengarriari lotuta, aldi baterako lan-poltsak kudeatzeko irizpide berrietan jasotako bermeekin. Horrenbestez, azken xedea da, Gobernu Batzordeak lan-poltsa behin betiko eta formalki onartzen duenean, bat etortzea, zuzen-zuzenean, zonifikazioarekin, nahi gabeko ondorioak eta efektuak saihesteko.

Behin epe hori amaituta, atera den behin-behineko zerrenda onartu behar da, dagozkion lan-poltsak eratzeko.

Edonola ere, poltsak osatzen dituzten pertsonen lanpostua betetzeko baldintza guztiak bete beharko dituzte kontratua egiten den egunean.

Gai honen eskumena GUFEn gerente jaunari dagokio, halaxe xedatzen baitute goraxeago aipaturiko gaikuntzak eta, bere 9. artikuluan, 2001eko maiatzaren 30eko 4/2001 Foru Arauak, erakunde hori eraentzen duten estatutuak aldatzekoak.

Beraz, hau sinatzen dutenek honako ebazpen-proposamen hau aurkezten dizute, aztertu eta onar dezazun:

EBAZPENA

Lehena.- Onestea erizainen kategoriako hautaketa-prozesutik sortutako lan-poltsaren zonifikazio-prozesuko behin-behineko zerrenda, ebazpen honetan eranskin gisa jasoa.

Bigarrena.- Eranskin horretan dauden pertsonen bost egun naturaleko epea ematea, uztailaren 19tik 23ra (biak barne), euren detektatzen dituzten okerrak zuzen ditzaten, halakorik izanez gero. Epe hori



oker materialak edo hizkuntza eskakizunari buruzkoak zuzentzeko baino ez da, eta ezin da ezein aldaketarik egin zonifikazioari buruz daborduko eginda dauden aukerei buruz.

Hirugarrena.- Xedatzea zerrenda horiek (eranskinean daudenak) GUFEn iragarki-oholean eta web orrialdean argitara daitezela.

Bilbo, 2021eko uztailaren 16a

AUKERAKETA ETA HORNIKUNTZA ARLOKO
BURUA

Sin.: Mª José Larrinaga Artetxe

PERTSONAK ZUZENTZEKO
DEPARTAMENDUKO BURUA

Sin.: Eneko Gutiérrez Coterón

EBAZPENA, 2021eko uztailaren 16koa,
GUFEn gerentearena. Aurreko proposamena
ikusita, osorik onartzen da. Bete bedi.

Sin.: David Latxaga Ugartemendia